

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ekonomia Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2021 FORU DEKRETUA, apirilaren 13koa. Honen bidez, 2021eko Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 3i Plana dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onesten dira.

I

Bizkaian berrikuntzarako politiketan egindako ahaleginak eta lortutako emaitzek pizgarria izan behar dute orain arte herri administrazioak eta eragile pribatuek egindako ahalegina sendotzeko; izan ere, enpresa-sare lehiakorraren modernizazioa lortzeko orduan berrikuntzari, enpresen nazioartekotzeari eta inbertsioari lehentasuna ematen diten epe luzeko politiken bidez baino sortzen ez delakoan dago administrazioa; hura da arriskuak saihesteko eta globalizazioak ematen dituen aukerak baliatzeko bide nagusia.

Legegintzaldi honetan, Ekonomia Sustatzeko Sail berri bat daukagu, Bizkaiak eta Bizkaiko enpresa- eta ekonomia-sareak dituzten interesen defentsarekin konprometituta dagoena. Horretarako, Bizkaiak industrian eta industriaren lehentasunezko sektoreetan zentratuta dituen indarren aldeko apustu trinko bat egitea proposatzen du, enpresa berritzaileagoak, internazionalagoak eta modernoagoak, kalitatezko enpleguaren sortzaileak lortzeko.

Dekretu hau eta dekretuak lortu nahi dituen helburuak Ekonomia Sustatzeko Sailak sustatutako jarduera-multzoaren zati bat dira. Izan ere, programen eta zerbitzuen garapenean sustatzen ditu jarduera horiek, aberastasuna sortzen laguntzeko, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra sustatuta.

3i programaren helburua da berrikuntza, inbertsioa eta nazioartekotzea uztartzen dituzten enpresetan inpaktu handiko proiektuei laguntza ematea. Zenbateko altuko laguntzak eskaintzen ditu, betiere estatuko laguntzei buruzko Europako araudian jasotako errespetatuz. Programa horrek Ekonomia Sustatzeko Sailaren laguntza eta zerbitzu multzoa osatzen du, eta Bizkairako estrategikoak diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza sendoa behar duten proiektuei zuzentzen zaie.

Laguntza-plan honek, gainera, bat egiten du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Planaren barruan ezarritako RIS3 espezializazio adimentsuko estrategian jasotako lehentasunekin, eta arreta berezia jartzen du industria adimentsuan, Euskadiko Industria 4.0. estrategian azaldutakoaren bidean.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dekretu honetan araututako dirulaguntzen lerroa jasotzen da. Foru Dekretu hau Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020 Urteko Araugintza Planean Foru aurreikusten zen baina azkenik 2020 Urteko Araugintza Planean sartu da ekitaldi honetan onartzen baita. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan dirulaguntzen programa hau gauzatzeko behar diren kredituak esleitu dira.

II

Foru dekretu honetan jasotako laguntzek edo dirulaguntzek Europar Batasuneko Funtzionamenduaren gaineko Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Araudi Orokorrean xedatutakoa bete beharko dute.

Programa hau Euskadiko FEDER 2014-2020 Programa Eragilearen bidez ere finantza daiteke, FEDER Landa Garapeneko Europako Funtsaren arloan. Une oro begiratu da europar politikak bete daitezen; batez ere, honako alderdi hauetan: ingurumena, aukera-berdintasuna, kontratazio publikoa eta europar kofinantziazioaren publizitatea.

**III**

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. artikulua hau ezartzen du: «Bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute bereziki» eta «Enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte».

Beraz, foru dekretu honen xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.25 eta 37.4 artikuluetan xedatutakotik ondorioztatzen denez, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta Bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen arteko Harremanei buruzko 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6.1 eta 7. artikuluekin eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren (aurrerantzean 3/1987 Foru Araua) 17.2 artikuluekin lotuta. Azken artikulua horrek dioenez, Foru Aldundiari dagozkio araubide erkideko diputazioen eskumenekoak diren gaiak, eta, ildo horretan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.d) artikulua ezartzen du probintzietako diputazioen berezko eskumena dela «probintziako lurraldearen garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko eta plangintza egiteko lankidetzara ematea, arlo horretan beste herri-administrazioak dituzten eskumenekin ba etorritik».

IV

Foru dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan (aurrerantzean 4/2018 Foru Arauan) ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da 4/2018 Foru Arauaren 25. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa; izan ere, haren bidez, generoaren eraginarekin aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean (aurrerantzean 4/2005 Legean) dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan, foru dekretu horren 2. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzkoa.

Programa horretan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeaz gain, kohesioari laguntzeko, egungo politika publikoen aplikazioa sendotzen duten klausula sozialak sartu dira. Helburu horretarako, dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidaren gomendioei jarraitu zaie, gida horrek erraztu egiten baitu arau hauetan ezarritakoa aplikatzea: Dirulaguntzen Erregelamenduari buruzko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean, Dirulaguntzen Erregelamendua) 45. artikulua aldaketa. Foru dekretu horren bidez, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatu zen, Foru Administrazioak emaniko dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena (aurrerantzean, 5/2005 Foru Araua). Adierazitako 45. artikulua hori otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen, eta Bizkaiko Batzar Nagusiek 2017ko urriaren 18an onetsitako mozioaren ondorioz izapidetu zen.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, 39/2015 Legean) aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren (aurrerantzean 2/2017 Foru Dekretua) 3. artikuluan jasotzen diren.

Foru Dekretu hau egiteko eta izapidetzeko, 2/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapideak egin dira, eta Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari, Kontrol Ekonomikoari eta legedia betetzeari buruzko nahitaezko txostenak egin dira.

Foru dekretu honek ez du funtsean aldatzen laguntzen programaren aurreko deialdiak arautzen dituen dekretuaren edukia. Ondorioz, ez zen egokia izan kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak egitea, 2/2017 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren lehen paragrafoaren arabera.



V

5/2005 Foru Arauaren 8.3 eta 16.1 artikuluetan xedatutakoa eta Dirulaguntzen Araudiaren 41. artikuluan xedatutakoa modu koordinatuan irakurrita, ondorioztatzen da Bizkaiko Foru Aldundia gaituta dagoela foru-dekretu bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzeko, oinarriak dirulaguntza mota bakoitzari buruzkoak izango direla, eta oinarri arautzaileak eta dirulaguntzen deialdia batera onartzeko aukera dagoela. Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuaren proiektua Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio, onar dezan.

Araugintza-ekimenari dagokionez, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio, 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluan eta sail horren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Edonola ere, Gobernu Kontseiluari dagokio aztertzea bidali den testua onartzea, 3/1987 Foru Arauaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko apirilaren 13eko bileran aztertutik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Oinarri arautzaileak eta deialdia onestea

Ekonomia Sustatzeko Sailaren Berrikuntzari, Nazioartekotzeari eta Inbertsioari Laguntza Integrala emateko 3i 2021 Planaren dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartu dira. Programa horren testua foru dekretu honi atxikita dago eranskin gisa, eta haren xedapen-zatiari erantsita, ondorio guztietarako.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen Gehigarri Bakarra. — Aurrekontu erregimena

1. Eskabide guztiak ebatzi ondoren ez bada iristen gehieneko aurrekontu-mugara, gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko da, soberan den zenbatekoan, eta horretarako ez da beharrezkoa izango foru dekretu hau aldatzea.

2. Dirulaguntzen erregelamenduaren 43. artikulua babesean aurrekontuko zuzkiduren guztizko zenbatekoa areagotu ahal izango da, gehienez ere 1.000.000,00 euro gehituz, baldin eta eskuragarri dauden kredituak areagotu badira kreditua handitzea onartu delako edo kreditua sortu edo gehitu delako edo baldin eta kopuru osagarri bat badago aurreko deialdietan aurkeztutako eskaeren zenbatekoa aurrez ikusitakoa baino txikiagoa izan delako; kasu horietan, kreditu osagarri hori soilik izango da eraginkorra baldin eta kreditu horren erabilgarritasuna adierazita badago. Adierazpen hori dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Organo eskudunak baimenduko du kopuru handitze hori.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Xedapen Iraganko Bakarra. — Jakinarazpen elektronikoa

Jakinarazpen elektronikoari buruzko betebeharrari dagokionez, jakinarazpena egiten denean bitarteko elektronikoen bitartez egiteko prozedura ez badago teknikoki amaituta, jakinarazpena paperean egingo da, posta ziurtatuaren bidez.

AZKEN XEDAPENAK

Amaierako Lehen Xedapena. — Arauen garapena

Ekonomia Sustatzeko diputatuak ahalmena izango du honako foru dekretu hau garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta kasu bakoitzean dagokion diru-laguntza ematea ere; aurrekontu-zuzkidura amaitu ezean, deialdi berriak egiteko eta subrogazio-eskaerak ebazteko. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari baimena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea luza-



tzeko, 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusitako kasua gertatzen bada, hau da, dagokion sistemaren ohiko funtzionamendua edo aplikazioa eragotzi duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada.

Amaierako Bigarren Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko apirilaren 13an.

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



**BERRIKUNTZARI, NAZIOARTEKOTZEARI ETA INBERTSIOARI LAGUNTZA
INTEGRALA EMATEKO 31 2021 PLANEKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAREN
OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA**

AURKIBIDEA**I. kapitulua. — Xedapen orokorrak**

- 1. oinarria. Xedea eta helburua.
- 2. oinarria. Aurrekontuko zuzkidura.
- 3. oinarria. Definizioak.
- 4. oinarria. Entitate onuradunak.
- 5. oinarria. Diruz lagun daitekeen egitatea.
- 6. oinarria. Emateko prozedura.
- 7. oinarria. Balorazio irizpideak.
- 8. oinarria. Laguntzen zenbatekoa.
- 9. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.
- 10. oinarria. Burutzeko epeak.
- 11. oinarria. Dirulaguntza metaketa.
- 12. oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna.

II. kapitulua. — Aplikatu beharreko araudia eta antolaketa-xedapenak

- 13. oinarria. Ezarri beharreko arautegi orokorra.
- 14. oinarria. Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak.
- 15. oinarria. Erakunde laguntzaileak.

III. kapitulua. — Prozedurazko xedapenak**1. atala. — Xedapen espezifikoak**

- 16. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea.
- 17. oinarria. Gehienez aurkez daitezkeen eskabideak.
- 18. oinarria. Eskabidean aurkeztu beharreko agiriak.
- 19. oinarria. Justifikatzeko epea.
- 20. oinarria. Justifikatzeko modua eta dokumentazioa.
- 21. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea.
- 22. oinarria. Laguntzaren publizitatea.

2. atala. — Eskabideen instrukzioa eta ebazpena

- 23. oinarria. Eskabideak nola aurkeztu.
- 24. oinarria. Txostenaren instrukzioa.
- 25. oinarria. Eskabideen ebaluazioa.
- 26. oinarria. Ebazpen proposamena.
- 27. oinarria. Aurrekontuaren muga.
- 28. oinarria. Ebazteko epea.
- 29. oinarria. Ebazpena.
- 30. oinarria. Errekurtsoak.
- 31. oinarria. Dirulaguntzari uko egitea.
- 32. oinarria. Jakinarazpen elektronikoa.
- 33. oinarria. Dirulaguntzen argitaratzea.

**3. atala.- Dirulaguntzen kudeaketa eta egiaztapenari buruzko xedapenak**

- 34. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak.
- 35. oinarria. Gastuen egokitzapena.
- 36. oinarria. Azpikontratazioa.
- 37. oinarria. Eskaintza aukeratzea.
- 38. oinarria. Jarraipena.
- 39. oinarria. Justifikatzeko modua.
- 40. oinarria. Baldintzak aldatzea.

4. atala.—Dirulaguntzak itzultzea eta arau hauste administratiboak

- 41. oinarria. Dirulaguntza erakunde onuradunak berak itzultzea.
- 42. oinarria. Ez betetzeak.
- 43. oinarria. Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak.
- 44. oinarria. Zehapen-prozedura.
- 45. oinarria. Deslokalizazioa.

Eranskina.— Ekonomia jarduera zerrenda**I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria.— Xedea eta helburua**

1. Oinarri arautzaile eta deialdi hauen xedea 2021eko deialdian Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 3i Plana dirulaguntzen programa arautzea da.

2. Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 3i 2021 Planak enpresen lehiakortasuna hobetzen duten eragiteko indar handiko proiektuak laguntzea du helburu, proiektu horiek berrikuntzan, nazioartekotzean eta inbertsioan eragiten duten ekintza integralak jasotzen dituztela.

3. Xede horrekin erakunde onuradunei dirulaguntzak eskaintzen dizkie.

2. oinarria.— Aurrekontuko zuzkidura

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak (guztira 5.000.000,00 euro) jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partidetan, aurrekontu proiektu eta urtekoetatik ordainduko dira; gutxi gorabeherako kopuruetan banakatuta agertuko dira, eta muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

08.02/44300/426.107	
Proiektu zk.: 2015/0025	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2021	400.000,00
2022	400.000,00
GUZTIRA	800.000,00



08.02/74300/426.107	
Proiektu zk.: 2015/0025	
Ekitaldia	Zenbatekoa (€)
2021	2.100.000,00
2022	2.100.000,00
GUZTIRA	4.200.000,00

3. oinarria.— *Definizioak*

Foru dekretu honetan definizio hauek biltzen dira. Hemen islatu edo jaso ez den guztian Itunaren 107 eta 108. artikulua (DO, L 187, 2014ko ekainaren 26an) aplikatuta barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten dituen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EE Araudian jasotako definizioak izango dira aginduzkoak (aurrerantzean, 651/2014 (EE) Araudi Orokorra):

- «ETEE»: Honako hauek joko dira ETEEtzat: 651/2014 (EE) Araudi Orokorrearekin bat etorrita ekonomi jardura bat garatzen duen erakundea, enpresaren itxura juridikokoa eta berezko nortasun juridikokoa, 250 pertsona baino gutxiagoko plantilla duena eta 50 milioi euroko kopurua gainditzen ez duen negozio-bolumena duena edo urteko balantze orokorrean 43 milioi euroko kopurua gainditzen ez duena.
- «Enpresa txikia»: Honako hau definitzen da enpresa txikitzat ETEEen kategorian: 50 pertsona baino gutxiagori okupazioa eskaintzen dien eta urteko negozio-kopuruak edo urteko balantze orokorrak 10 milioi euroko kopurua gainditzen ez duen enpresa.

Kasu bietan, enpresa eskatzailearen baliagarrien eta mugen zenbaketa egitean kontuan hartuko da elkartu edo loturiko enpresen baliagarrien batuketak, 651/2014 (EE) Araudi Orokorren aipatutako I. eranskineko 4, 5 eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Langiletzat joko dira lan-kontratu baten bidez enpresari lotuta dauden pertsonak, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuta badaude.

Halaber, langiletzat joko dira lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta ez badaude ere, eta enpresan lan- edo lanbide-jardura garatzen duten pertsonak, baldin eta, beren izaeragatik, ezin badira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon, Segurtasunaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 305.2 artikuluen b) eta e) letretan jasotakoaren arabera.

Seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik lansaioa murrizten den kasuetan, erakunde eskatzailearen beraren eskariz, murrizketa kontuan hartu gabe konputatu ahal izango dira lansaio horiek.

Urteko negozio-bolumena negozio-zifraren zenbateko garbiari dagokiola joko da, bai eta balantze orokorra aktibo osoari dagokiola ere; zenbateko garbia eta aktibo osoa, biak, enpresaren sozietateen gaineko zergaren azken aitortpenean (autolikidazioan) jasota daude.

- «Produkzio-zentroa»: antolamendu espezifiko duen ekoizpen-unitatea, hala alta emanda dagoena lan-agintaritzaren aurrean, lantoki bat osatzen duena Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.5 artikuluen arabera.
- «Garapen esperimental»: zientziaren, teknologiaren, enpresaren eta abarren esparruetako jakintzak eta teknikak (aurretik existitzen zirenak) eskuratzea, konbinatzea, itxuratzea eta erabiltzea, produktu, prozesu edota zerbitzu berrien, aldatuen edo hobetuen plan eta egitura edota diseinuak egiteko xedearekin. Barnean hartu ahal izango ditu, esate baterako, produktu, prozesu eta zerbitzuen



kontzeptuen definiziorako, plangintzarako eta dokumentaziorako beste hainbat jarduera.

Laguntza programa honen arabera, garapen esperimentalak prototipo eta proiektu pilotuak garatzea ere barne har dezake, produktu, prozesu edo zerbitzu berrien edo hobetuen saiakuntza eta balioztatzea, funtzionamenduaren baldintza errealak diren ingurune adierazgarrietan, baldin eta helburu nagusia hobekuntza tekniko berriak ekartzea bada guztiz sendotua ez dauden produktu, prozesu edo zerbitzu horiei; prototipo eta edo proiektu pilotuen garapena ere diruz lagundu daitezke, ezinbestean, azken merkataritza-produktua denean eta bere fabrikazioa soilik erakusketa- eta balioztatze-helburuetarako garestiegia denean.

Garapen esperimentalak ez ditu barne hartzen produktuetan, produkzio-lerroetan, fabrikazio-prozesuetan, existitzen diren zerbitzuetan eta martxan dauden bestelako jardueretan egindako ohiko edo aldizkako aldaketak, horrelako aldaketek hobekuntzak eragin baditzakete ere.

- e) «Bideragarritasun-azterlana»: proiektu baten indarra ebaluatu eta aztertzea, erabakiak hartzeko prozesua objektiboki eta zentzuz laguntzeko, haren puntu ahulak eta indartsuak eta aukerak eta erasoak aurkituz, eta hura burutzeko beharrezko baliabideak eta, azken batean, haren arrakasta-aukerak zehazteko, hain zuzen ere.
- f) «Antolaketaren inguruko berrikuntza»: salerosketari, lantokiaren antolamenduari edo enpresak kanpokoekiko dauzkan harremanei antolaketa-metodo berria aplikatzea.

Ez dira haien artean sartuko jada enpresan erabiltzen ziren antolaketa-metodoetan oinarritutako aldaketak, kudeaketa-estrategian egindako aldaketak, bat-egiteak eta eskuraketak, prozesu bat bertan behera uztea, kapitala ordeztu edo handitze hutsa, faktoreen prezioa aldatu dela-eta sortutako eraldaketak, ekoizpen pertsonalizatua, toki erabilerei egindako egokitzapena, sasoiaren arabera edo bestela aldian-aldian egindako aldaketak eta produktu berrien edo nabarmen hobetuen salerosketa.

Honako hauek sartzen dira, besteak beste, antolaketaren inguruko berrikuntza-barruan:

- i. Pertsonen eta taldeen protagonismoan oinarritutako antolaketaren inguruko berrikuntza: lantokiaren antolaketari beste metodo bat aplikatzea antolaketa-aldaketa-prozesu baten bidez eta antolaketa kudeatzeko eretan, erakundeko pertsonak proiektu horien inguruko gogoetan eta proiektu horien praktikan jartzeko prozesuetan modu zabal eta anitzean parte-hartzea ekarriz.
 - i. Salerosketen antolaketaren inguruko berrikuntza: merkatu berriak irekitzeko eta produktu eta zerbitzuak saleroskete bide berriak sortzeko berrikuntza, salerosketei edo enpresa batek dauzkan kanpoko harremanei antolaketa metodo berri bat aplikatzea ekarriz.
- g) «Prozesuen inguruko berrikuntza»: ekoizpen- edo hornitze-metodo berri bat edo nabarmen hobetua aplikatzea (teknika, ekipo edota programa informatikoei egindako aldaketa nabarmenak barne), baldin eta haien helburua prozesuari balio erantsi handiagoa ematea bada.

Ez dira haien artean sartuko eraldaketa edo hobekuntza txikiak, aurretik ere erabiltzen ziren fabrikazio-sistema edo logistiken oso antzekoak sartuta lortutako ekoizpen- edo zerbitzu-gaitasunen hobekuntzak, prozesu bat bertan behera uztea, kapitala ordeztu edo handitze hutsa, faktoreen prezioa aldatu dela-eta sortutako eraldaketak, ekoizpen pertsonalizatua, sasoiaren arabera edo bestela aldian-aldian egiten diren aldaketak eta produktu berrien edo nabarmen hobetuen salerosketa,

- h) «Aholkularitza zerbitzuak»: enpresatik kanpoko aholkularitza-zerbitzuko enpresek edo profesionalek berrikuntza eta nazioartekotzearen inguruko aholkularitza eta laguntza eskaintako zerbitzuak.



Zerbitzu horiek ez dira jarduera iraunkorrak edo aldian aldikoak izango, eta ez dute harremanik izango enpresaren ustiapen-gastu arruntekin, esaterako, aholkularitza fiskaleko ohiko zerbitzuak, aldian aldiko zerbitzu juridikoak edo publizitate-zerbitzuak.

Zerbitzu horien artean, honako hauek zehazten dira:

- i. «Berrikuntzaren inguruko aholkularitza-zerbitzuak»: ezagutza-eskualdaketaren, aktibo ez-materialen eskuraketa, babes eta ustiapenaren eta haien eranstean dituzten arau eta erregelamenduen erabileraren arloetako aholkularitza, laguntza eta prestakuntza
- ii. «Inbertsioaren inguruko aholkularitza-zerbitzuak»: teknologiaren eskualdaketaren eta eskuraketaren arloetako aholkularitza, laguntza eta prestakuntza.
- iii. «Nazioartekotzearen inguruko aholkularitza-zerbitzuak»: enpresaren nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak, honako hauek esaterako: nazioartekoaren inguruko diagnostikoa, gogoeta eta dibertsifikazio estrategikoa, nazioartekotze-planaren prestaketa, herrialdearen eta herrialde horretan egoteko eraren hautaketa, destino zehatz batean finkatzeko bideragarritasun tekniko edota ekonomikoa, finkatzeko balizko proiektuen gaineko bideragarritasun-azterlana, destinoko herrialde horretan eragiketak has-teko beharrezko zerga-, finantza- eta lege-arazoei buruzko txostenak (akordioak, kontra-tuak...) merkatu-ikerketa, eta tokiko gizarte erakunde bantzaileen bilaketa eta hautaketa, teknikari espezializatuen hautaketarako laguntza edo nazioartekotze-planaren arabera identifikatutako merkatuetan sartzeko beharrezko bestelako ikerketa-jarduketa eta azterlan batzuk.

Zerbitzu horien artean ez dira sartzen balizko bezeroen zerrenden prestaketa, ezta merkataritzako agenteen eta ordezkarien kostua ere.

4. oinarria. — Entitate onuradunak

1. Dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte beheko baldintzak betetzen dituzten enpresek:

- a) Gutxienez ekoizpen-zentro bat izatea Bizkaiko Lurralde Historikoan, edo dirulaguntza eskatzen den proiektuaren gauzatze-aldiaren barruan ezartzea, proiektuaren emaitza gisa.
- b) Berezko nortasun juridikoa izatea.
- c) Hauetariko jarduera izatea: industria, eraikuntza, garraioa, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (I. eranskinean ageri dira 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN) epigrafeetatik dirulaguntza jaso dezaketenak).
- d) ETE izatea.
- e) 5 eta 100 pertsona arteko langile edukitzea, lansaio osokoak urteko kopuru baliokideetan. Honetarako erakunde eskatzaileari soilik dagozkion datuak hartuko dira. Langiletzat jotzeko 3.b oinarrian adierazitakoa hartuko da kontuan.
- f) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.
- g) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren (aurrerantzean 4/2018 Foru Arauan) 42. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotea.
- h) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Administrazioak emaniko dirulaguntzen araubide juridiko orokorra maiatzaren 31 5/2005ko Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere.

Aurreko baldintzak eskabidea aurkezten den unean egiaztatu behar dira, eta ebazpena eman, justifikazioa egin eta ordainketa egin arte mantendu beharko dira. Aurrekotik salbuetsita daude d) eta e) baldintzak eta 5/2005 Foru Arauaren 12.2.b artikuluan ezarritako debekua, salbu eta konkurtso-likidazioaren fasea ireki dela aitortu bada; horiek biak



eskabidea aurkezten den unean egiaztatu eta ebazpena eman arte mantendu beharko baitira.

2. Arlo guztietatik kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak, fundazioak, federazioak, partidu politikoak eta erlijio erakundeak.

3. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira krisian dauden enpresak, krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Gidalerroetan (DO C 249 2014ko uztailaren 31) haiei buruz jasotako definizioaren arabera.

4. Foru dekretu honetatik kanpoan geratzen da esplizituki legez kontrakoa edo barruko merkatuarekiko bateraezin adierazi duen Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren berreskuratzeko zain dauden enpresentzako banakako laguntzen ordainketa.

5. Dirulaguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek 5/2005 Foru Arauaren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Bereziki, jasotako fondoak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetzak eskaini beharko diete. Era berean, Europako funtsei buruzko xedapen erkideak ezartzen dituen abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren (aurrerantzean 1303/2013 (EB) Erregelamendua) 125.4. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute.

6. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute; zehazki, modu aktiboan sustatu beharko dute emakumeen eta gizonen berdintasuna, eta lan-baldintza duin eta gizalegezkoak, diskriminaziorik sortzen ez dutenak, bermatu.

5. oinarria. — Diruz lagun daitekeen egitatea

1. Erakundearen edozein eremutan (ekoizpen-prozesua, antolaketa, partaidetza, merkatua, jabetzaren babesa...) berrikuntza proiektuen bidez erakunde eskatzailearen lehiatzeko gaitasuna hobetzera bideratutako jarduketak argi eta garbi estrategikoak, hari loturiko inbertsioak eta erakundearen negozio-ereduarekin koherenteak diren eta eragin handia duten nazioartekotzerako jarduketak dirulaguntza jaso dezaketen egitatetzat jotzen dira. Jarduketa horrek proposatutako hiru arloetatik (berrikuntza, inbertsioa eta nazioartekotzea) gutxienez bi betetzen dituen proiektu integral bat izan behar du eta enpresak Bizkaian duen zentro batean oinarrituta garatu behar da.

2. Ez dira diruz lagun daitekeen egitatearen barruan hartuko aurkeztutako proiektuaren zati nuklearrari guztiz uztartuta ez dauden edo harekin lotura gutxi edo loturarik ez duten jarduketak.

3. 651/2014 (EE) Araudi Orokorraren III. kapituluko 2. atalaren (17, 18 eta 19. artikuluko 9 eta 4. atalaren (25, 28 eta 29. artikuluko) arabera eta dekretu honen 3. oinarrian —definizioak— xedatutakoarekin bat etorruta, kategoria hauetan sar daitezkeen jarduketak bakarrik joko dira dirulaguntza jaso dezakeen egitatetzat:

- a) ETEEen aldeko inbertsioetarako laguntzak: Aktiboetako inbertsioa.
- b) Aholkularitza-zerbitzu etarako ETEEentzako laguntzak: Berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak.
- c) ETEEentzako laguntzak, merkataritzako azoketan parte har dezaten: Atzerriko merkataritza-azoketako partaidetza
- d) Ikerketa eta garapeneko proiektuetarako laguntzak: Garapen esperimentaleko eta bideragarritasun-azterlanetako jarduerak
- e) Prozesuetako eta antolaketako berrikuntzarako laguntzak: Prozesuetako eta antolaketako berrikuntzako jarduerak
- f) ETEEen aldeko berrikuntzarako laguntzak: Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa.



4. Nolanahi ere, proiektuak sexu arrazoiengatik ez dira baztertzailak izango, eta ahal dela, sexuaren arabera rolak eta estereotipoak ezabatu beharko dituzte.
5. Honako proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:
 - a) Erakundearentzat berrikuntzarik ekartzen ez duten proiektuak.
 - b) Kalitate kontrolari lotutako proiektuak, eta produktuak egokitzea merkatuak edo aplikatu beharreko arauak ezarritako berariazko betekizunetara.
 - c) Produktuaren birdefinizio estetikoa edo industri konplexutasunik gabeko aldaketak, markaren kudeaketa edo nortasun korporatiboaren kudeaketa beste helbururik ez duten proiektuak.
 - d) Plan estrategikoak, merkataritza-planak edo antzekoak eta haien berrikuspenak idazteko aholkularitza.
 - e) Produktuaren bizi-zikloari buruzko azterketak.
 - f) Plangintzarako pakete informatikoak (ERP, CRM, GMAO, etab. gisakoak) garatzeko proiektuak.
 - g) Kudeaketa-sistemen ezarpena.
 - h) «Funtsezko ikerketako» edo «industria ikerketako» proiektuak, «Ikerketa eta garapen eta berrikuntzako estatu laguntzei buruzko erkidegoko esparruak» egindako definizioaren arabera.
 - i) Atzerrian ekoizpena finkatzeko edo merkataritzako ordezkariak ezartzeko proiektuak.
 - j) 651/2014 (EE) Araudi Orokorrean zehaztutakoaren arabera esportazio-jarduerak.
 - k) Bizkaiko Lurralde Historikoko zentroetan aplikatu ezin diren proiektuak.
 - l) Definizioan (argitasuna, plangintza, egikaritzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (baliabide teknikoak, giza taldea, zuzkidura ekonomikoa...) gabezia argiak dauzkaten proiektuak.
 - m) Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren bestelako programa edo jarduketarako arloen barruan sar daitezkeen jarduerak.
 - n) Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuekin bat ez datozen edota Ekonomia Sustatzeko Sailaren eskuduntzen eremuan sartzen ez diren jarduerak.

6. oinarria. — Emateko prozedura

1. Dirulaguntzak norgehiagokako araubidearen arabera esleitu dira, hautaketa-prozedura bakarren bidez, urte horretan dirulaguntza egitarau honentzat deialdi bat baino gehiago onartzeko aukeraren kaltetan jo gabe.
2. Foru dekretu honen ondorioetarako, haxe hartzen da norgehiagokatzat: dirulaguntzak emateko prozesu honetan aurkeztutako eskabideak alderatu egiten dira, arlo eta atal bakoitzean ezarri diren balorazio-irizpideekin bat etorritik haien artean hurrenkera bat ezartzeko. Horrela, deialdi honen barruan eskura daitezkeen kreditua muga moduan ezarrita, baloraziorik handiena lortu duten eskabideek jasoko dute dirulaguntza.

7. oinarria. — Balorazio irizpideak

1. Onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten enpresetatik, baloraziorik onena lortzen dutenek jasoko dituzte dirulaguntzak, aurrekontuan baliagarri dagoen mugaren barruan, honako irizpide hauen arabera eta adierazitako ponderazio edo haztapenak eginez. Irizpide bakoitzean ebaluaziorako aintzat hartuko diren alderdiak adierazten dira.

1. irizpidea: Proiektuaren eragina (25 puntu)

- 1.a) Proiektuak enpresaren hazkundean izan dezakeen eragina (15 puntu).
- 1.b) Proiektuak Bizkaian izan dezakeen trankzio-efektua (10 puntu).



2. irizpidea: Proiektuak enpresaren lehiazeko gaitasunean izan dezakeen eragina (55 puntu)

- 2.a) Berrikuntza maila (10 puntu).
- 2.b) Nazioartekotze-maila (10 puntu).
- 2.c) Inbertsioak lehiazeko gaitasunari egindako ekarpena (10 puntu).
- 2.d) Proiektuak enpresaren estrategiarekin eta negozio-ereduarekin duen koherentzia (25 puntu).

3. irizpidea: Proiektuaren definizioa eta aurkeztutako proposamenaren kalitatea (15 puntu)

- 3.a) Proiektuaren plangintza eta kudeaketa (5 puntu).
- 3.b) Proiektuaren helburuak, adierazleak eta jarraipen-sistematika (5 puntu).
- 3.c) Proiekturako jarritako baliabide tekniko eta humanoak (5 puntu).

4. irizpidea: Enpresaren konpromiso soziala eta iraunkortasuna (3 puntu)

Irizpidea honetan, kontuan hartuko da enpresak ziurtagiriak eta /edo planak izatea arlo hauetan: ingurumenaren iraunkortasuna, genero-berdintasuna, euskararen sustapena eta erantzukizun sozial korporatiboa.

5. irizpidea: Gizonen eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan (2 puntu)

1. Irizpide honetan, kontuan hartuko dira proiektuan parte hartuko duten enpresako langileetako gizonen eta emakumeen kopurua eta proiektuan gizonen eta emakumeen erantzukizunaren banaketa.

2. Irizpide horiek erabiliz organo instruktoreak ebaluazioa egingo du eta azken balorazioa dakarren ondorioen txostena egingo du; hortik aterako da aurkeztutako proiektuen sailkapena.

3. Gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ezetsi egingo dira, laguntza ekonomikoa jasotzeko gutxieneko puntuaziora ez heltzeagatik

8. oinarria. — Laguntzen zenbatekoa

1. Programa honetan ezarritako onurak ezarritako egitate eta diruz lagun daitezkeen gastuengatik dirulaguntzak dira..

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da ondoko portzentaje hauek diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz, kostu motaren arabera. Beraz, laguntzaren portzentajea eta gehieneko laguntza zehazteko, enpresa eskatzailea enpresa txikiaren kategorian edo beste ETE batzuenean kokatu da, 3. oinarrian adierazitakoaren arabera.

Kategoria Categoría	Laguntzaren gehieneko % % máximo de ayuda	
	Enpresa txikia Pequeña empresa	Beste ETE batzuk Otras PYME
Aktibo finkoetako inbertsioa Inversión en activos materiales	20%	10%
Berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak Servicios de consultoría para innovación, inversión e internacionalización	50%	50%
Atzerriko merkataritza-azoketako partaidetza Participación en ferias comerciales en el extranjero	50%	50%
Garapen esperimentaleko jarduerak eta bideragarritasun-azterlanak Actividades de desarrollo experimental y estudios de viabilidad	45%	35%
Prozesuetako eta antolaketako berrikuntza-jarduerak Actividades de innovación en procesos y organización	50%	50%
Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa Obtención, validación y defensa de patentes y otros activos inmateriales	50%	50%



3. Emandako laguntzen gehieneko zenbatekoak hauek izango dira erakunde eskatzaile bakoitzeko, lagundutako proiektu bakoitzean:

Enpresa txikia Pequeña empresa	Beste ETE batzuk Otras PYMEs
450.000	500.000

4. Diruz lagun daitekeen gutxieneko oinarria 500.000 euro izango da, kopuru horretatik gehienez %50 langile-gastuak izan daitezkeelarik.

5. Jarduketa burutzeko unea zein ere den, laguntza aurrekontuko ekitaldi bati edo hainbati esleitu ahalko zaie.

9. oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak

1. Laguntza egitarau honetan aurkeztutako proiektuen diruz laguntzeko moduko oinarria zenbatekotzeko, proiektuaren aurrekontua hartuko da kontuan. Aurrekontuak kontzeptuka desglosaturik egon behar du.

2. Eskabidean aurkeztutako gastuetako bakoitza dekretu honen 5. oinarrian —diruz lagun daitekeen egitatea— jasotako kategorien arabera sailkatuko da.

3. Kategoria bakoitzean diruz lagun daitezkeen gastu hauek daude zehaztuta:

a) Aktiboetako inbertsioa: Honako hauek joko dira aktibotzat. lurrak, eraikinak eta instalazioak, softwareko lizentziak, makineria eta ekipoak diren aktiboak.

Inbertsioak honako hauek bat egiteko aktibo material edo inmaterialeko inbertsioa izango dira: establezimendu berri bat sortzeko, lehendik zegoen establezimendu bat handitzeko, establezimendu baten ekoizpena ekoizpen berri gehigarrien bidez dibertsifikatzeko edo lehendik zegoen establezimendu baten ekoizpen-prozesu orokorrean funtsezko aldaketa bat sartzeko.

Bereziki, makinarian eta ekipoetan egiten diren inbertsioak funtzionamenduan jarri behar dira lehenengoz.

Dirulaguntza jaso dezakete leasing modalitatearen bidez eskuratutako aktibo finkoetako inbertsioek, betiere kontratuan ondasuna eskuratzeko konpromisoa jasotzen bada. Kasu horietan, ondasuna eskuratzeko erabilitako zenbatekoa soilik joko da diruz lagundu daitekeen gastutzat, eta ez dira inola ere onartuko finantza-errentamenduaren kontratuko baldintzak direla-bide aplikatzen diren finantza-gastuak eta komisioak.

b) Berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzerako aholkularitza-zerbitzuak: kanpoko aholkulariek berrikuntza, inbertsio eta nazioartekotzearen inguruan eskainitako aholkularitza-zerbitzuen kostuak. Zerbitzu horiek ez dira jarduera iraunkorrak edo aldian aldikoak izango, eta ez dute harremanik izango enpresaren ustiapen-gastu arruntekin, esaterako, aholkularitza fiskaleko ohiko zerbitzuak, aldian aldiko zerbitzu juridikoak edo publizitate-zerbitzuak.

c) Atzerriko merkataritza-azoketako partaidetza: Erakusketako standa alokatu, muntatu eta kudeatzeko gastuak.

d) Garapen esperimentaleko eta bideragarritasun-azterlanetako jarduerak

i. Langile-kostuak.

ii. Zeharkako kostuak.

iii. Tresna eta makineriaren kostuak, proiekturako erabiltzen diren heinean eta denboran.

iv. Kontratu-ikerketei, ezagupenei eta kanpo-iturrien lizentzia bidez erositako edo lorturiko patentei dagozkien kostuek, betiere era-giketa erabateko lehiako baldintzetan eta proiekturako bakarrik badira.

e) Prozesuetako eta antolaketako berrikuntzako jarduerak:

i. Langile-kostuak.



- ii. Zeharkako kostuak.
- iii. Tresna eta makineriaren kostuak, proiekturako erabiltzen diren heinean eta denboran.
- iv. Kontratu-ikerketei, ezagupenei eta kanpo-iturrien lizentzia bidez erositako edo lorturiko patentei dagozkien kostuek, betiere era-egiketa erabateko lehiako baldintzetan eta proiekturako bakarrik badira.

f) Patenteen eta beste aktibo ez-material batzuen lorpena, baliozkotzea eta defentsa:

Europako, nazioarteko edo estatuko (baina nazioartekoan) patente-eskabideen aurkezpena eta tramitazioa, baita Europako Erkidegoko, nazioarteko edo estatuko (baina nazioartekoan) erabilera edo diseinuko ereduena ere.

3. Langile-gastuak ikertzaile, teknikari eta gainontzeko langile laguntzaileekin zerkusia duten kostuak joko dira, proiektuan edo jarduera egokian diharduten heinean. Kontzeptu horretan, erakunde eskatzailearen konturako karga sozialek eta gordain soldata eragindako zuzeneko langile-gastuei dagozkienak (Gizarte Segurantzak) daude sartuta.

4. Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

$$\frac{\text{G.S.K.O.} \times 12 \times 1,25}{\text{Urteko ordu kopurua}}$$

Non:

- i. G.S.K.O. gertaera arruntak direla-eta langileak Gizarte Segurantzari egin beharreko hileko kotizazio-oinarria da. Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.
- ii. Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 orduko hartuko dira.
- 5. Diruz lagun daitekeen oinarria kalkulatzeko orduan, gehienez 6 pertsona hartuko dira kontuan enpresa txikiak badira eta gehienez 12 gainerako ETEtarako.
- 6. Nolanahi ere, ez du gaitutako 240 orduko kopurua erakundeko eta hileko, enpresa txikiaren kasuan, ezta ere 480 orduko kopurua erakundeko eta hileko, gainerako ETEen kasuan.
- 7. Justifikazioan, esleipen-unean onar zitekeen gehieneko ordu-kopuru bera onartuko da, proiektuaren epeen aldaketak gorabehera.
- 8. Zeharkako gastuei dagokienez, berriz, erakundearen administrazio gastu orokorren zati proportzionalari dagozkionak dira (energia elektrikoa, telefonoa, administrazioko langileak, alokairuak...). Dirulaguntza jaso dezakeen oinarria kalkulatzeko orduan, onartutako langile-kostuen %15 onartuko da gehienez.
- 9. Ondoko hauek ezin izango dute dirulaguntza jaso:
 - a) Zergak eta tasak, BEZa bazter utzita (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai), eta jabetza industrialak babesteko prozesuei lotutako tasak kanpo utzita.
 - b) Hornitzailea nor izango den adierazten ez duten gastuak edo inbertsioak.
 - c) Bidaien, otorduen eta mantenuaren gastuak.
 - d) Aktibo finkoak alokatzeko gastuak.
 - e) Edozein kudeaketa-sistema ezartzeko gastuak.
 - f) Defentsa legalak, eta beste erakunde fisiko edo juridiko batzuek patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak sortutako gastuak.
 - g) Jabetza industrialaren bulegoetako urteko ordainketak.



- h) 1.000 euro (BEZa kenduta) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituzten kanpoko gastuak edo kanpoko inbertsioak. Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapen edo ordainketa epetan edo erlotan zatitu bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiriak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela egiaztatzea ahalbidetzeko.

10. Dena dela, 34. oinarrian ezarritakoa beteko da. Artikulu horretan dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak adierazten dira.

11. Diruz lagun daitekeen gastuaren balorazioa euroa ez den beste txanpon bat erabiliz eginez gero, fakturaren datan egingo da eurorako trukea.

12. 10. oinarrian ezarritako burutzeko epearen barruan (laguntza eskatzen den data-tik 2022ko abenduaren 31ra bitartean, biak barne) sortutako eta fakturatutako gastuak lagundu ahalko dira diruz, beti ere 19. oinarrian ezarritako justifikatzeko azken egunera arte (2023ko martxoaren 31) ordainduta badaude. Kanpoko gastuetan fakturazio data hartuko da erreferentzia gisa sortzeari buruzko kontabilitate-printzipioa urratzen ez badu.

10. oinarria. — Burutzeko epeak

1. Laguntza-programa honetara aurkeztutako jarduerak laguntza-eskabide aurkeztu ondoren eta 2021eko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko dira eta 2022ko abenduaren 31 baino lehen amaitu.

2. Salbuespen gisa eta 38.6 oinarrian jasotako baldintzetan, enpresa onuradunak proiektua egiteko eta/edo justifikatzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du. Luzatzeko eskaera egiteko azken eguna gauzatzeko epea amaitu baino hilabete natural bat lehenago izango da.

3. Luzapena onesten bada, ebazpen espresu bat emango da, non proiektua egiteko eta/edo justifikatzeko epe berriak adieraziko diren. Ebazpen espresurik ematen ez bada, administrazio-isiltasuna negatiboa izango da ezezpeneko eraginarekin.

11. oinarria. — Dirulaguntza metaketa

1. Foru dekretu honetan jasotako laguntzek edo dirulaguntzek 651/2014 (EE) Araudi Orokorrean xedatutakoa izango dute eta, ondorioz, arau hori ez betetzeak erantzukizun penal, zibil eta administratiboa ekar diezaioke arau-haustea egin duen enpresari.

2. Diruz lagun daitezkeen eta identifika daitezkeen kostuak ezin izango dira honako hauekin pilatu:

- a) Estatutik etorritako beste edozein laguntzarekin, baldin eta laguntza-neurri horiek diruz lagun daitezkeen eta identifika daitezkeen kostu ezberdinetakoak badira;
- b) Estatutik etorritako beste edozein laguntzarekin —zati batean edo oso-osorik— diruz lagun daitezkeen kostu berberekoak badira, bakarrik pilaketa horrek laguntzen intentsitatea edo araudi horren arabera laguntza horri ezarri beharreko laguntza-kopururik handiena gainditzen ez badu.

3. 651/2014 (EE) Araudi Orokorraren bidez salbuetsita dauden laguntzak ez dira pilatuko dirulaguntza jaso dezaketen kostu berberei dagozkien minimis laguntzekin, pilaketa horrek araudi orokorraren III. kapituluan eta foru dekretu honen 6. oinarrian ezarritako laguntzaren muga gainditzen badu.

12. oinarria. — Dirulaguntzen bateragarritasuna

1. Foru dekretu honen itzalpean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu beragatik ematen dituztenekin, beti ere foru dekretu honen 11. oinarrian aipatzen diren metatze-mugak gainditzen ez badira, ez eta 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan ezarritakoa ere.

2. Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren beste plan, programa edo jarduera-arlo batek diruz lagundutako gastuek ezin izango dute dirulaguntza jaso.



3. Nolanahi ere, dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek Ekonomia Sustatzeko Sailari era frogagarrian jakinarazi beharko diote beste dirulaguntzarik jaso duten, egun batean edo bestean eman. Hala balego, horrekin batera egin den diru itzulketako gutunaren kopia bidaliko da. Horrek guztiak hala behar du, 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako. Horrela, beraz, beste dirulaguntzen edo laguntza ekonomikoaren zenbatekoak zenbatetsi eta, proiektua finantzatzeko ehunekoa mantentze aldera, dirulaguntza esleitzeko ebazpena aldatu ahal izango da. Jakinarazpen hau jakin eta berehala egin beharko da eta, edozein kasutan, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

4. Ekonomia Sustatzeko Saila beste finantzatzaileekin harremanetan jarri ahalko da baterako finantzaketa adosteko.

II. KAPITULUA

APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA ETA ANTOLAKETA-XEDAPENAK

13. oinarria. — *Ezarri beharreko arautegi orokorra*

1. Foru dekretu honetan aipatutako dirulaguntzei dagokienez, aginduzkoak izango dira foru dekretu honetako xedapenak, laguntzak emateko foru aginduetan ezartzen diren gainerako baldintzak, 5/2005 Foru Arauaren xedapenak eta Dirulaguntzen Erregelamendua, eta estatuko edo erkidegoko gainerako arau aplikagarriak.

2. Era berean, 651/2014 (EE) Araudi Orokorra eta, osagarri gisa, 39/2015 Legea ere erabiliko dira.

3. Interesdunak ematen dituen datuak foru dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako araudi honetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurreantzean 3/2018 Lege Organikoan). Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko ("ahaztua izateko eskubidea"), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatua soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak bada-karrazio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan erreboka dezake lehen adierazitako onarpena. Informazio gehiagorako eta eskubide horiek baliatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean kontsulta daiteke datu pertsonalen babesari buruzko atala (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>). Halaber izango du eskubidea erreklamazioa aurkezteko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzaren aurrean.

14. oinarria. — *Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak*

1. Dirulaguntzetarako eskaerak Berrikuntza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta, eskaerok ebazteko, Ekonomia Sustatzeko Saileko arduradunak esanbidezko ebazpena eman go du, Ekintzailatza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak hala proposaturik.

2. Emakida prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkartza ordezkartuta dagoela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkariaren bat eduki beharko dutela, 4/2005 Legearen 20. artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

**15. oinarria. — Erakunde laguntzaileak**

1. Ekonomia Sustatzeko Sailak berari atxikitako foru sozietate publiko batzuen laguntza du bere helburuak lortzeko. Beaz, S.A.U. da sozietate horietako bat. Sozietate horrek dirulaguntza egitarauan esku hartuko du, erakunde laguntzaile gisa, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

2. Beaz, S.A.U. erakunde laguntzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren izenean eta kontura jardungo du; sail hori izango da, ondorio guztietarako, foru dekretu honetan ezarritako laguntzen emaila.

III. KAPITULUA**PROZEDURAZKO XEDAPENAK****1. ATALA****XEDAPEN ESPEZIFIKOAK****16. oinarria. — Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko apirilaren 19an hasiko da, eta 2021eko maiatzaren 7ko 13:30ean amaituko da.

17. oinarria. — Gehienez aurkez daitezkeen eskabideak

1. Erakunde bakoitzak, eskabide bat (1) aurkeztu ahal izango du. Beraz, eskabidea izaera orokorreko proiektu bati egokituko zaio.

2. Erakunde batek baimendutako gehieneko eskaera-kopurua baino gehiago aurkeztzen badu organo inbentarioak jakinarazi egingo dio eta 10 eguneko epea emango dio eskaeretakozko batzuei uko egiteko, bere nahierara. Berariazko erantzunik jaso ezean, baimendutako eskaera kopurua soilik hartuko da kontuan, eta horretarako, eskaerak sarrera erregistroan duten zenbakia hartuko da aintzat.

18. oinarria. — Eskabidean aurkeztu beharreko agiriak

1. Laguntza egitarau honen onurei heldu nahi dieten enpresek oinarria honetan jasotako agiriak bidali behar dizkiote Ekonomia Sustatzeko Sailari.

2. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Eskabide telematikoa, 23. oinarrian ezarritakoaren arabera.
- b) Ekonomia Sustatzeko Sailaren web gunean eta bulegoetan eskura daitezkeen ereduaren arabeko eskabidea.
- c) Eskuragarri dagoen Langile Izendun Zerrenda RNT (aitzineko TC2a) berriena. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren kotizazio-oinarrien azken txostena ere (eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne) eta bere banku-ordainagiria ere (autonomoen buletina) erantsiko du.
- d) Enpresak baldin badauzka, indarrean dauden ziurtapenak eta/edo planak, genero ikuspegi, ingurumen, euskararen sustapen eta enpresa erantzukizun sozialekoak, bai eta erakunde publiko eskudunek emandako aintzatespenak eta diplomak ere.
- e) Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundiko webgunean dagoen eredu ofiziala, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo dauden datuak aldatu nahi badira. Dokumentazio osoa dagoela jotzen den data zehazterakoan ez da kontuan hartuko hartzekodunaren fitxa, espedientearen ebazpena emateko ondorioetarako.

3. Proiektua baloratzerako ondokoak hartuko dira kontuan jasotako agiriak eta proiektuan parte hartuko duten enpresako pertsonekin egindako elkarrizketan bildutako informazioa.

**19. oinarria. — Justifikatzeko epea.**

1. Dekretu honen babesean garatutako proiektuak justifikatzeko epea laguntza onartu eta hurrengo egunean hasiko da, eta epemuga 2023ko martxoaren 31 izango da, egun hori barne.
2. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, dirulaguntzaren azken justifikazioaz gainera, bitarteko justifikazio bakarra aurkeztu dezakete.
3. Salbuespen gisa 10 eta 38.6 oinarrietan jasotako baldintzetan, enpresa onuradunak proiektua egiteko eta/edo justifikatzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango du.

20. oinarria. — Justifikatzeko modua eta dokumentazioa

1. Gastu agiriekiko egiaztapen-kontuaren sistemaren bidez egin beharko da dirulaguntzaren justifikazioa eta horretarako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 2. Dirulaguntza egiaztatzeko aurkeztu beharko diren agiriak:
 - a) Justifikazio telematikoa, 39. oinarrian zehaztutakoaren arabera.
 - b) Justifikazioaren txostena, webean eta Ekonomia Sustatzeko Saileko bulegoetan eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
 - c) Eskuragarri dagoen Langile Izendun Zerrenda RNT (aitzineko TC2a) berriena. Enpresari lotutako langile autonomoak badaude, pertsona bakoitzaren kotizazio-oinarrien azken txostena ere (eskuragarri dagoen azken hileko kotizazioa barne) eta bere banku-ordainagiria ere (autonomoen buletina) erantsiko du.
 - d) Legezko baldintzak betetzen dituzten gastuen fakturak. Beste herri batzuetako fakturekin batera itzulpena aurkeztu beharko da, ingelesez eginda daudenak izan ezik. Leasing kasuetan, finantza errentamenduaren kontratuaren kopia, hornitzaileak finantza erakundeari egindako fakturaren kopia eta erosteko azken aukera hondar-balioarekin burutzeko konpromisoaren agiria (baina ez da aurkeztu beharrik izango finantza errentamenduaren kontratuan islatzen bada).
 - e) Fakturen ordainketen frogagiriak. Ez da onartuko eskura ordaintzea.
 - f) 37. oinarrian eskatzen diren hiru eskaintzak edo ordezkio agiriak.
 - g) Laguntzaren publizitate egokia egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa, 22. oinarrian adierazitakoaren arabera.
 - h) Dirulaguntza emateko ebazpenean beren-beregi aurkezteko eskatu dena.
 3. Dirulaguntza kalkulatzeko kostuak lau kategoriatan sailkatuko dira: kanpoko gastuak, inbertsioak, langileen barneko langileria-gastuak eta zeharkako gastuak. Proiektua justifikatzeko unean, goiko kategorien batean onargarria den zenbateko osoa dirulaguntza kalkulatzeko onartu zen zenbatekoa baino txikiagoa dela ikusten bada, beste kategoriatan dagoen %20raino goranzko desbideratzeen bidez konpentsatu ahal izango da, beti ere 9. oinarrian ezartzen den langileria-gastuetarako gehienezko dirulaguntza gainditzen ez bada. Kostu-kategoria bakoitzari dagozkion laguntza-portzentajeen arabera kalkulatzeko dirulaguntzatik justifikatu beharreko zenbatekoari dagokionez, guztira emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo gehiago justifikatu behar da. Bestela, ez-betetzearen ondoriozko prozedura hasiko da.
4. Dena dela, Ekonomia Sustatzeko Sailak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko. Era berean, Ekonomia Sustatzeko Sailak erakunde eskatzaileari bisitak eskatu ahal izango dizkio proiektua egin bitartean eta amaitu ondoren, jarraipen egokia egiteko.
5. Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardueraren eragina ebaluatzeko, sail horrek enpresari proiektuak iraun bitartean zein proiektu amaitu eta osteko urteetan enpresaren bilakaera adierazten duten adierazle ekonomikoak eta enpleguari buruzko adierazleak nahiz proiektuak enpresan izandako eraginari buruzkoak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Adierazle horiek aurkezteko epea, eskatzen zaizkion unean zehaztuko da.

**21. oinarria. — Dirulaguntza ordaintzea**

1. Proiektua gauzatzeko gastuei dagozkien dirulaguntzak (kanpo-gastuak, inbertsioak eta langileen barne-gastuak) BEAZ SAUren bidez emango dira. Ordainketak proiektua gauzatzearen arabera egingo dira, justifikazio partzialak edo osoa jaso ondoren. Gehienez ere bi (2) ordainketa egingo dira.

2. Dirulaguntzaren azken justifikazioari dagokionez, emandako zenbatekoak Beaz, S.A.U. sozietateri aurretiaz ordainduko zaizkio, ez sozietate horri ez erakunde onuradunei bermerik eskatu gabe.

3 Erakunde onuradunei egiten zaizkien ordainketak diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen diren justifikatutako gastuen proportzionalak izango dira, urteko bakoitzean ematen diren kopuruak gorabehera. Kopuru hori aldi bakoitzean eman dena baino txikiagoa izan daiteke, eta, hala badagokio, egindako gastuaren proportzionala den dirulaguntzaren azken doikuntza egin behar da.

4. Beaz, S.A.U erakunde laguntzaileari ordaintzeko, bai eta erakunde laguntzaile horrek erakunde onuradunari ordaintzeko ere, erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko ditu. Bestela, itzultzeko edo kobratzeko eskubidea galtzeko eskatuko da, 5/2005 Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

22. oinarria. — Laguntzaren publizitatea

1. Foru dekretu honen babesean emandako laguntzen onuradun diren eskabideek, diruz lagundutako jarduerak hedatzeko ekintza guztietan, Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako laguntzaren berri eman beharko dute, dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 17.3 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, bai eta EGEFek lagundutako finantzaketaren berri ere, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren XII. eranskinaren 2.2 atala aplikatuz.

2. Proiektuaren finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia, euskarri informatikoetan zein bestelakoetan, honako adierazpen hau sartzera mugatu beharko da: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, 2021eko 3i Programaren barruan eta FEDER funtsaren kofinantziazioa ere badauka / Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del Programa 3i 2021 y cuenta con cofinanciación del FEDER». Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Europar Batasunaren ikur ofizialak ere izango ditu. Berariaz debekatuta dago Bizkaiko Foru Aldundia aipatzen duen beste edozein legenda edo irudi erabiltzea.

3. Erakunde onuradunek kartel bat jarriko dute proiektuari buruzko informazioarekin (gutxienez A3 tamainakoa). Kartel horretan, jasotako laguntza aipatuko dute, jendeak ikusteko moduko leku batean. Era berean, aktibo materialak (instalazioak, makinak, ekipak...) finantzatzuz gero, jasotako laguntza aipatzen duen kartel edo itsasgarri bat jarriko da aktibo bakoitzean.

4. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4. artikuluetan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan. Era berean, pertsona edo erakunde onuradunek beren jardueraren berri herritarrei emateko erabiltzen dituzten liburuxka, kartel edo bestelako euskarri guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

5. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikuluen arabera, arau horren 8., 9. eta 10. artikuluetan jasotako gardentasun- eta publizitate-betebeharrak aplikatuko zaizkie aurrekontuko ekitaldi batean gutxienez 100.000 euroko laguntza edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuei, edo urteko diru-sarreraren gutxienez %40k Foru laguntza edo dirulaguntza publikoaren izaera dutenean, baldin eta gutxienez 5.000 badira.



2. ATALA

ESKABIDEEN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA**23. oinarria. — Eskabideak nola aurkeztu**

1. Eskabidea, behar bezala eta oso-osorik beteta, Internet bidez aurkeztu behar da. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiko web orrian (www.bizkaia.eus), Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualari dagokion atala erabili behar da.

2. Horrela bada, eskabideak bide telematikotatik aurkeztu behar direnez, enpresa interesdunek aldeztu aurretik sinadura elektronikoa izan beharko dute (izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Azken hau eskatu ahal izango da Ekonomia Sustatzeko Sailan (Orueta Apezpikua kalea, 6., Bilbo). Alta prozeduraren gaineko informazioa eskuragarri dago aipatutako Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualari dagokion atalean.

3. Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da erakundea Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakundearen erregistroan alta emanda egotea (106/2016 Foru Dekretua, ekainaren 14koa; Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 116 zenbakia, 2016.ko ekainaren 17koa). Egotea horretan ez badago, erakundeak inskribatzeko eskaera bete beharko du, dirulaguntza eskabidea izapidetu baino lehen.

4. Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakundearen eta pertsona fisikoen erregistroko datuak bete ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora eramango dira automatikoki, behar diren jakinarazpen elektronikoak egiteko, 32. oinarrian ezarritakoaren arabera.

5. Nolanahi ere, instrukzioaz arduratzen den organoak elkarrekin zerikusia duten eskabideak taldekatu edo banakatu ditzake, eskabideok ondo aztertu eta ebaluatzeko eta dirulaguntzaren xedeko jarduerara ondoen egokitzen den egitate lagungarria zehazteko neurri egokia dela irizten badio.

6. Eskatzaileak, dirulaguntzarako eskabidea aurkeztean, baimena ematen dio organo instruktoreari, onuraduna izateko baldintzen inguruabarren egiaztapena zuzenean lor dezan; hori, Dirulaguntzen Erregelamenduari 17.1. artikuluan eta 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, telematikako ziurtagiri egokien bidez egin daiteke.

7. Eskabideekin batera 18. oinarrian ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira; ares-tian aipatu bulego birtualean agiriak eransteko dagoen sistema erabiliko da.

24. oinarria. — Txostenaren instrukzioa

1. Eskabideen espedienteak honelaxe izapidetuko dira:

- a) Instrukzioaz arduratzen den organoak ezarri diren eta pertsona edo erakunde onuradun gertatzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.
- b) Eskabideak behar bezala beterik ez badaude edo deialdietan aipaturiko agiriak erantsita ez badituzte, eskabidea aurkeztu duen enpresari agindeia egingo zaio instrukzioaz arduratzen den organoak jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den hamar (10) asteguneko epean akatsa konpon dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan; eta ohartaraziko zaio, hori egiten ez badu, eskaera bertan behera utzi duela uste izango dela berariaz emango den ebazpenaren bitartez, 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, organo instruktoreak aurkeztu diren eskabideak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat hartzen dituen agiri edota argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskabidea aurkeztu duten erakunde eskatzaileei.

25. oinarria. — Eskabideen ebaluazioa

Eskabideak ebaluatuko dituen erakundeak behin betiko ebazpen proposamena egingo du. Proposamen horrek ez die inolako eskubiderik emango proposamen horretan bertan onuradun ageri diren pertsonari edo erakundeei.

**26. oinarria. — Ebazpen proposamena**

1. Ebaluazioa egindakoan organo instruktoreak egiaztatuko du eskaera egin duen pertsonak edo erakundeak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela, baina aurretik eskabidea egin behar zaio Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari. Halaber, pertsona edo entitate eskatzailearen zerga egoeraren egiaztatzea eskatuko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

2. Behin egiaztatuta, instrukzioaz arduratzen den organoak Ekintzailatza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiari ebazpen proposamena igorriko dio.

27. oinarria. — Aurrekontuaren muga

Aurreko oinarrian aipatutakoarekin bat etorritik, aurreztutako eskabide guztietatik aurrekontu-partidan aurrekontuek ahalbidetzen dituzten bezain beste hautatuko dira.

28. oinarria. — Ebazteko epea

1. Foru dekretu honen itzalpean aurrezten diren eskabideak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epealdia sei (6) hilabetekoa izango da deialdi bakoitzeko eskaerak aurrezteko epea amaitzen denetik.

2. Organo eskudunak, nolana ere, aurreztutako eskabide guztientzako ebazpena eman behar du nahitaez. Ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, administrazio-isiltasunaren ondorioz eskabideari gaitz iritzi zaiola ulertuko da, horrela xedatzen 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

29. oinarria. — Ebazpena

1. Ekintzailatza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen proposamena, eta hark ebaztuko du dagokion foru aginduaren bidez.

2. Lehia erregimenean emango diren laguntzei dagozkien ebazpenak onartutako eta ukatutako laguntzak ekarriko ditu. Horrez gain, pertsona edo erakunde onuradun izateko foru dekretu honetan ezarri diren baldintza administratiboak eta teknikoak betetzen dituzten, baina deialdiari dagokion kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu izanagatik onartu ezin izan diren eskabideak ere ekarriko ditu. Aurreikusitako balorazio-irizpideen arabera, eskaera bakoitzari esleitutako puntu-kopurua adieraziko da.

3. Dirulaguntza ematen duen ebazpenean baldintza bereziak ezarri ahalko dira, foru dekretu honetan edo dagokion deialdian xedatutakoa proiektuen iazera bereziari edo bestelako inguruabarrei egokitze aldera beharrezkoa irizten bazaio.

4. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betez.

5. Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak hamar (10) laneguneko epea du jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita baiezkoa emateko. Epe hori amaitu eta interesdunek ez badute ezer adierazi, ebazpena onartu dela ulertuko da.

30. oinarria. — Errekurtsoak

1. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, Ekonomia Sustatzeko Saileko titularrari ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete (1) pasatu baino lehen, 39/2015 Legearen ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Halaber, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurreztu ahal izango da txandaka dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi (2) hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa araupezu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoarekin bat etorritik. Ezin dira bi errekurtso horiek aldi berean jarri.

**31. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea**

1. Onuradun gertatu diren pertsonetako edo erakundeetakoren batek dirulaguntzari uko egingo balio, dirulaguntza eskaintzen duen organoak zerrendan, 6. oinarriaren arabera lehentasun ordenari jarraiki, hurrengo dauden pertsona edo erakunde eskatzaileri emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar (10) eguneko epean dirulaguntza proposamena onets dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Dirulaguntza eskatu duen pertsona edo erakundeek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organoak laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

3. Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) laneguneko izango da, erakunde interesdunari dirulaguntza proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igaro ondoren, uko egitea dirulaguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak ez-betetzea dela joko da.

32 oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa

1. Ekonomia Sustatzeko Sailak interesdunei jakinarazpenak egitean, bide elektronikoa erabili beharko ditu, 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluen arabera.

2. Bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://www.ebizkaia.eus>) bertaratuz egin beharko dira, Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 Foru Aginduaren arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

33. oinarria. — Dirulaguntzen argitaratzea

1. Dirulaguntzak ematen diren urte naturala amaitu ondorengo lehen hiruhilekoa bukatu aurretik, ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

2. FEDER Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren arautegiari jarraituz, foru dekretu honetako laguntzak onartzeak berekin dakar datuak zerrenda publiko batean sartuko direla onartzea: alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko FEDER 2014-2020 programa eragilearen eragiketen zerrendan.

3. 651/2014 (EE) Araudi Orokorraren 9. Eta 11. artikuluei jarraituz, dekretu honetako laguntzak onartzeak berekin dakar datuak estatuko laguntzen datu basean sartuko direla onartzea.

3. ATALA**DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ETA EGIAZTAPENARI BURUZKO XEDAPENAK****34 oinarria. — Dirulaguntza jaso dezaketen gastuetarako irizpide orokorrak**

1. Honako hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak: indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatu direnak, betiere epearen barruan egin badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten badiete.

2. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen kostuak ez dira onartuko baldin eta merkantuan duten balioa baino handiagoak badira.

3. Edonola ere, honako gastu hauek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

- a) Dirulaguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.
- b) Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, joko da lotura dagoela Sozietateen Gaineko Zergari



buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritza Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan.

4. 5/2005 Foru Arauaren 29.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ondasun inbentariagarriak erosteko, eraikitze, zaharberritze edo hobetzeko kasuetan, pertsona onuradunak ondasunak dirulaguntzaren xede zehatza betetzeko bideratzeko epea hamar (10) urtekoa izango da, erregistro publikoan inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, eta bost (5) urtekoa, gainerako ondasunen kasuan. Erregistro publikoan inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, egoera hori aipatu egin beharko da eskrituran, bai eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, dagokion erregistro publikoan erregistratu ere.

5. Erakunde onuradunak gastuak diruz laguntzeko modukotzat jo ahal izateko kontabilitateko erregistro bat eraman beharko du, diruz lagundutako proiektuari dagozkion diru-sarrerak eta gastuak bereiz identifikatu ahal izateko, dela kontabilitateko sistema berezi baten bidez, dela proiektuarekin lotutako transakzio guztietarako kontabilitateko kode egoki bat esleituz, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 125.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

35. oinarria. — Gastuen egokitzapena

Ekonomia Sustatzeko Sailak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen bidez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

36. oinarria. — Azpikontratazioa

1. Pertsona edo erakunde onuradun batek azpikontratazioa egin duela ulertuko da dirulaguntzaren xedea den jarduera zati batez edo osorik egitea beste norbaitekin kontratatzen duenean. Kontzeptu honetatik kanpo geratuko da pertsona edo erakunde onuradunak berak bakarrik diruz lagundutako jarduera egiteko dauzkan gastuak kontratatzea. Ondorioz, makinak, ekipamendua eta material suntsigarriak erostea, diruz lagundutako jardueraren barruan lan zehatzak egiteko kanpoko zerbitzuak kontratatzea, eta diruz laguntzen den jardueraren beste gastu osagarri batzuk egitea ez da azpikontratazio izotzat joko.

2. Diruz laguntzen diren zerbitzu edo proiektuetako jardueren %100eraino azpikontratatu ahalko da, baldin eta 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Dirulaguntzen Erregelamenduko 53. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatzen badira.

3. Dirulaguntzaren xedea gauzatzea agintzen zaien erakundeek, 4/2005 Legean eta 4/2018 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, bertan ezarritako printzipio orokorrak eta 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan jasotako betebeharrak errespetatu beharko dituzte.

4. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak dirulaguntzari dagokion jardueraren zati bat hirugarrenekin ituntzen dituenean, jarduera dirulaguntzaren zenbatekoaren %20 baino gehiago bada eta, gainera, azpikontratazioaren prezioa 60.000 euro baino gehiagokoa bada, erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu beharko dio azpikontratazio hori egin ahal izatea; horretarako, haren baldintza nagusiak eta zein erakunderekin itundu den jarduera burutzea adierazi beharko dira. Ekintzailatza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiak ebatziko du eskabidea, hamabost (15) eguneko epean. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ezean eskabideari ezetsi zaiola pentsatuko da.

37. oinarria. — Eskaintza aukeratzea

1. Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean kontratuak txikitzen hartzeko finkatzen diren zenbatekoa (40.000 eurotik beherakoa, obra-kontratuak badira eta 15.000 eurotik beherakoa, hornitze- edo zerbitzu-kontratuak badira) baino gehiagokoa bada, pertsona onuradunak hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izan-



go baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

2. Aurkeztutako eskaintzak egiaztagirian edo, egotekotan, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu behar dira. Eskaintza horien arteko aukeraketa eraginkortasun eta ekonomi irizpideen arabera egingo da. Proposamenik merkeena ez baldin bada aukeratzen, zergatia memoria batean berariaz bidezkotu behar da.

38. oinarria. — Jarraipena

1. Foru dekretu honetan aurreikusten diren dirulaguntzak eskuratuko dituzten pertsonak edo erakundeek lagunduko diren jarduerak gauzatu direla eta dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztela agiri bidez frogatu beharko dute. Hori guztia egin beharko dute foru dekretu honetan, dagokion deialdian nahiz esleipena dakarren foru aginduan aurreikusten den moduan eta Ekonomia Sustatzeko Sailak nahiz, kasuan kasu, dagokion erakunde laguntzaileak eskatzen duen unean frogatu beharko dira.

2. Zehazki dirulaguntzaren onuradun diren pertsona edo erakundeek, 4/2005 Legean eta 4/2018 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, horietan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu beharko dituzte.

3. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, dirulaguntza itzultzeko eskatuko da, eta 5/2005 Foru Arauan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Kasu horietan, onuradun gertatu den pertsonak edo erakundeak jaso duen eta frogatu ez duen diru-kopurua bueltatu beharko du, baita dagokion berandutze-interesa ere.

4. Dirulaguntza ematen duen organoak emate-erabakia ofizioz aldatu ahal izango du funtsak aplikatu aurretik eta interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren. Erabakia ofizioz aldatu ahal izango da dirulaguntza emateko betekizunetako bat aldatu egin bada eta, ondorioz, xedetzat hartu izan den interes publikoa bete ezin bada edo betetzeko zailtasunak izan baditu eta, bide batez, onuradun gertatu den pertsonari edo erakundeari kalte ekonomikoak eragin ez bazaizkio.

5. Organo instruktoreak entzunaldien egutegia ezar dezake Egitaraura aurkeztu diren proiektuen organo instruktorearen aurrean nahi izanez gero azalpenak aurkezteko.

6. Onuradun gertatu diren pertsonak edo erakundeek, halaber, laguntza ematen duen erakundeari dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzeko eska diezaioke diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurretik, betiere aipatu berri dugun aldatetaren bidez aldeztu aurretik ezarritako epeak luzatu nahi badira, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu nahi bada edo jardueraren barne dauden egintzak aldatu nahi badira. Eskaera horiek baimena jasoko dute aurretik ikusi ez diren baldintzak gertatzen badira, betiere dirulaguntzaren xedea aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideak urratzen ez badira.

7. Epeen luzapena 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da. Beraz, epeak luzatzeko eskaera eta erabakia dagokien epea bukatu baino lehen egin beharko dira eta luzapena ezingo da hasieran ezarritako epearen erdia baino handiagoa izan. Era berean, epeen luzapena emateko edo ukatzeko ebazpenak ezingo zaie helegitea jarri, beti ere prozedura amaitzen duen ebazpenari jar dakiokenean ez bada.

8. Halaber, Ekonomia Sustatzeko Sailak eskatu ahal izango dizkio Programaren emaitzak egoki ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak entitate onuradunari lagundutako proiektuaren amaieratik eta hurrengo hiru urteetan.

39. oinarria. — Justifikatzeko modua

1. Dirulaguntzak ezarritako agiriak aurkeztuz justifikatu behar dira.

2. Justifikazioa Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta. Horretarako, galdetegi bat bete behar da, Bizkaiko Foru Aldundiko web orrian (www.bizkaia.eus), Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualari dagokion atalean.



3. Justifikazioa egiteko epea igarota, ez bada justifikaziorik aurkeztu organo instrukzio-egilearen aurrean, organoak erakunde onuradunari eskatuko dio hamabost (15) eguneko epean aurkez dezala. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, dirulaguntza itzultzeko eskatuko da, eta 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira.

40. oinarria. — Baldintzak aldatzea

1. Pertsona edo erakunde onuradunak jakinarazi beharko du dirulaguntza ematean aintzat hartu ziren edozein inguruabar objektibo zein subjektiboren gaineko gertatu diren aldaketa guztiak.

2. Pertsona edo erakunde onuradunak, bidezkoketa egiterakoan, azaltzen badu dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzetan aldaketaren bat gertatu dela eta horrek ebazpena aldatzea ekar lezakeela, 38.6 oinarrian araututakoarekin bat etorritik, hura onetsi aurretik egin beharreko administrazio baimeneko izapidea bete gabe, dirulaguntzak ematen dituen organoak aurkeztu den bidezkoketa onartuko du, beti ere beste pertsonen eskubideak urratzen ez ba ditu; horrek, ordea, ez du pertsona edo erakunde onuraduna salbuetsiko 5/2005 Foru Arauaren arabera dagozkion zehapenetatik.

4. ATALA

DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

41. oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunak berak itzultzea

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako aldeztasun aurretiko errekerimendurik gabe egiten duena.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu dituen, 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unera arte.

3. Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko bidaliko zaion ordainketa-gutuna erabili behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera.

42. oinarria. — Ez betetzeak

Foru dekretu honetan nahiz aplikatu daitezkeen bestelako arauetan ezarri diren baldintzak zein, kasuan kasukoa, ebazpenean ezartzen direnak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira; baita, kasuan kasukoa, kopuru horien interesak ere. Halaxe adierazten baita 5/2005 Foru Arauaren II eta IV tituluetan, dagozkion legezko ekintzen eta zehapenen kalterik gabe. Aipatutako zenbatekoak, diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

43. oinarria. — Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak

1. Beste dirulaguntza batzuk ere jaso, eta gain-finantzazioa gertatuko balitz, gehiegizko diru-kopurua itzuli beharko du, halaxe ezartzen baita 5/2005 Foru Arauaren 18.3 artikuluan. Kopuru horri, gainera, dagozkion berandutza-interesa aplikatuko zaio.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantziario publikoan sortutako soberakina.

3. Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zailtasun barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jardura osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

4. Beaz, S.A.U., sozietateari badagokio funtsak banatzea eta justifikatutako gastua aurrekontuko gastua baino txikiagoa izateagatik itzultzeko espediente bat ebatzi bada,



ebazpen hori erakunde laguntzaileari jakinaraziko zaio, sobera geratutako funtsak itzul ditzan. Kasu horretan, ez da interesik aplikatuko.

5. Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun- printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, dirulaguntza jaso dezaketen egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren arabera izango da diru- laguntzaren itzulketa.

44. oinarria. — Zehapen-prozedura

1. 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan ezarritakoa bete beharko da.
2. 39/2015 Legean ezarritakoari jarraituko zaio, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoari ere, aurrekoari aurka egiten ez dionean.

45. oinarria. — Deslokalizazioa

1. Enpresa eta erakunde onuradunek enpresako deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute; deslokalizaziotzat Enpresako deslokalizazio kasuetan foru sektore publikoko laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauan xedatutakoa jotzen da; foru araua foru dekretu honek araututako dirulaguntzentzat guztiz aplikagarria izango da.

2. Konpromisoa ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren akordioaren bidez ebatziko da, eta emandako dirulaguntza itzuli behar izateko zioa izango da, aipatu foru arauan xedatutako prozedura aplikatuz.

**I. ERANSKINA****EKONOMIA JARDUERA ZERRENDIA**

4. oinarrian adierazitakoaren arabera, onuradun izateko, beste baldintza batzuen artean, enpresek EJSN-2009ko (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. BOEan argitaratua) epigrafe hauetakoren batean inskribatuta eduki behar dute euren jarduera ekonomiko nagusia

- B atala: Erauzketako industriak.
- C atala: Manufaktura-industria.
- D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornitura.
- E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.
- F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):
 - 41.1. taldea. Higiezinaren sustapena.
- G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):
 - 47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.
- H atala: Garraioa eta biltegiatzea.
- I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):
 - 56.3. taldea. Edaritegiak.
- J atala: Informazioa eta komunikazioak.
- M atala: Jarduera profesionalak, zientifiko eta teknikoak.
- N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):
 - 80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak.
- P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):
 - 85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak.
- Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):
 - 87. multzoa. Egoitzetako laguntza.
 - 88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak.
- R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):
 - 90. multzoa: Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak.
 - 91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk
 - 93.2 taldea: Aisialdi eta entretenimendu jarduerak
- S a tala: Bestelako jarduerak (multzo hau baino ez):
 - 95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen direnez bestelako jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahalko dira, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.